


OINARRIZKO KONPETENTZIAK LANTZEN

Zehar-konpetentziak:
metodologia eta ebaluaziorako
orientabideak



OINARRIZKO KONPETENTZIAK LANTZEN

Zehar-konpetentziak:
metodologia eta ebaluaziorako
orientabideak

HITZETZ, HITZIK GABE ETA MODU DIGITALEAN KOMUNIKATZEKO KONPETENTZIA

Konpetentzia hau honetan datza: ikasleak hitzezko, hitzik gabeko nahiz modu digitaleko komunikazioa eraginkortasunez eta modu egokian baliatzeko gauza izatea askotariko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

A) Orientabide metodologikoak

Konpetentzia hau garatzeko, ikasleei proposatuko zaizkien jarduerak askotariko apendizaiia-egoera aberatsak sustatu behar dituzte. Halaber, elkartruke komunikatiboak bultzatu behar dituzte hitzezko eta ez-hitzezko lengoia guztietan, eta ahalbidetu komunikazioaren kudeaketa eta haren egokitzapena, kasuan kasuko formak eta moduak baliatuz.

Gelako lanari laguntzeko, jarraibide hauek har daitezke kontuan:

- Ikasgelan, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko hainbat jarduera proposatu hala nola debateak, irakurketa partekatua, solasaldiak, erakusketak... eta haiek bideratzeko askotariko elkartzemotak sustatu: irakasle-ikasleak, ikasleak elkarrekin...
- Ikaskuntza erregulatzen eta ezagutza modu partekatuan eraikitzen laguntzen duten jarduerak proposatu.
- Hitzezko eta ez-hitzezko lengoia eta baliabide digitalak dituzten komunikazio-produktuak ulertzeko jarduerak bultzatu. Horretarako, aurretik adostutako ulermen-estrategiak baliatuko dira.
- Konplexutasun kognitibo-maila desberdinak dituzten jarduerak proposatu komunikazio-produktuak lortze aldera. Produktu horiek, hitzezko eta ez-hitzezko lengoia zein baliabide digitalak, elkarri lotuak nahiz lotu gabek, baliatuko dituzte.
- Ideiak modu sortzailean adierazteko aukera ematen duten jarduerak proposatu, hitzezko nahiz ez-hitzezko lengoia eta baliabide digitalak erabiliz, bakarka nahiz taldeka, askotariko formatutan egiteko.
- Ikasgelan bultzatu eta baliatu hainbat testuingurutan (pertsonalak, sozialak, lanbidekoak, akademikoak) sortu ohi diren komunikazio-egoera errealak edo egiantzekoak.

- Batez ere, ahozko komunikazioa eta komunikazio digitala bideratzen duten arau sozio-komunikatiboak lantzeko jarduerak proposatu.
- Kode digitalak, hitzezkoak eta hitzik gabekoak (ikonikoak, grafikoak, soinu bidezkoa...) erabiliz jarduera komunikatiboak proposatu banakako eta taldeko komunikazioa aberasteko.
- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazio kode desberdinak dituzten mezuak behatzeko, entzuteko, aztertzeko, interpretatzeko eta balioztatzeko jarduerak proposatu, lengoia horiek ulertzeko eta lengoia horiek elkarrekin integratuz komunikazioa aberasten dela egiaztatzeko.
- Sareko informazioa kudeatzeko eta kontrastatzeko jarduerak proposatu, haren arriskuez eta mehatxuez ohartarazteko jarrerak sustatzeko.
- Kode digitalak, hitzezkoak eta hitzik gabekoak dituzten mezuak bildu eta sailkatu ikasgai desberdinetan eta haiek baliatu ikasgaia zein arloa lantzeko jardueretan.
- Ikaskuntzarako baliabide iturri gisa liburutegia edo mediateka erabiltzen duten jarduerak bultzatu informazio-proiektuak egiteko
- Alfabetizazio anitzaren alde desberdinak lantzen dituzten jarduerak garatu eta horien inguruko erabakiak adostu ikastetxean: zer testu-tipoak, irudiak, musika, euskarri-motak...
- Eskolaz kanpoko jarduerak proposatu museo, antzoki, auditorio, egunkarietara... joan eta horiek ezagutzeko.

B) Ebaluaziorako orientabideak

Konpetentzia honetan, besteak beste, honako alderdi hauek baloratuko dira: ea ikasleek hainbat hizkuntzatako ahozko zein idatzizko testuak sormenez, eraginkortasunez eta autonomiaz ulertzen eta erabiltzen duten; baita ea askotariko kodeak dituzten mezuak sortzen eta ulertzen dituzten ere. Azkenik, baloratuko da ea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzailean, kritikoa, eraginkorrean eta seguruan erabiltzen dituzten apendizaiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.

Konpetentzia honetan kontuan hartuko da, halaber, ikaskuntza prozesua modu autonomoan antolatzeko ikasleek duten gaitasuna. Espero da, hortaz,

ikasleek ikasteko eta lan egiteko ohitura eraginkorrak garatzea, ikasteko estrategia egokiak erabiltzea eta ikasitakoa beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzeko gai izatea.

Konpetentzia hau ebaluatzeko, komeni da honako hauek egitea:

- Unitate didaktikoaren hasieran helburuak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak azaltzea. Ikasleei jakinarazi behar zaie zer espero den haiengandik eta negoziazio prozesuaren bidez ikasi eta landuko dutenaren inguruko baldintzak adostu.
- Unitate didaktikoaren hasieran, zereginak ulertzen laguntzeko tresnak aurkeztea:
 - Errubrikak: espero den ikaskuntza deskribatzen eta mailakatzen dute.
 - KWL galdetegiak (*zer dakit, zer jakin nahi dut, zer ikasi dut*): Ikaskuntza antolatzen laguntzen dute.
- Ikasleei tresnak eskaintzea ikaste-prozesuan zehar zailtasunei, aurrerapenei eta lorpenei buruzko hausnarketa egiteko. Besteak beste, honako hauek baliaitu daitezke:
 - Aprehendizaia-egunkaria: ikasleari laguntzen dio lorpenak eta zailtasunak antzematen. Astean behin, hamabostero edo sekuentzia didaktiko baten amaieran erabil daiteke.
 - Portafolioa: tresna honen bidez ikasleak aprehendizaia-prozesuan egin duen aurrerapena erakusten duten laginak jaso ditzake (laburpenak, aurkezpenak, testuak, monografiak, grabazioak, bideoak, denbora-lerroak, infografiak ...)
 - Kontratu didaktikoak: Aukera ematen dute iritziak modu esplizituan adierazteko eta erabakitzeko, banaka zein taldeka, zer ardurak hartuko diren eta zein diren lortu beharreko helburuak. Idatziz nahiz ahoz egin daitezke.
 - Autoebaluazio- eta koebaluazio-txantiloia: ikasitakoari buruzko gogoeta egiteko aukera ematen dute.

IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA

Konpetentzia honen ardatz nagusiak dira nork bere ikas-prozesua era autonomoan antolatzea, ikasteko eta lan egiteko ohitura eraginkorrak garatzea, ikasteko estrategiak egoki erabiltzea eta ikasitakoa beste zenbait testuinguru eta egoeratarara transferitzea.

A) **Orientabide metodologikoak**

Konpetentzia hau garatzeko, harekin lotutako jarduerak argi eta garbi planteatu behar dute zer helburu erdietsi nahi den, eta helburu hori ikasleek ezagutu behar dute. Era berean, ikasleek gaitasun hori arrakastaz jasotze aldera, oso garrantzitsua da jarduerak egokitzea ikasleen aniztasuna kontuan hartuta.

Gelako lanari laguntzeko, jarraibide hauek har daitezke kontuan:

- Hainbat informazio-iturri erabili, analogikoak eta digitalak, eta euskarri anitzak. Hasierako etapetan, irakasleak ikasleei lagunduko die informazioa bilatzeko prozesuan, haien autonomia modu progresiboan bultzatzeko asmoz.
- Informazio bilatzeko jarduerak planteatu: hainbat bilatzaile erabili, gaikako bilatzaileak, aurkibideak baliatu, bilatzaile aurreratuak, katalogoetan bilatu...
- Informazioa jaso, erregistratu, aukeratu eta berrerabiltzen laguntzen duten jarduerak proposatu: fitxak, azpimarratzea, apunteak, laguntza-txantiloiak.
- Informazioa gordetzeko, sailkatzeko, lortzeko eta berrerabiltzeko jarduerak proposatu: karpetak edo on-line biltegiatzeko tresnak erabili, etiketak baliatu, askotariko formatuak maneiatu...
- Informazio-iturrien fidagarritasuna ebaluatzeko jarduerak bultzatu, batez ere informazio digitalaren kasuan: iturriaren URL-a eta informazioaren egilea eta gaurkotasuna analizatu.
- Ulermenari lotutako prozesuak lantzen dituzten jarduerak sustatu: informazio esplizitua lortu, esanahi orokorra ulertu, forma eta edukia baloratu...

- Informazioa hobeto ulertze aldera, hura aintzat hartzea, identifikatzea, analizatu, alderatu eta sintetizatzea ahalbidetzen duten kognizio-maila ezberdinetako jarduerak proposatu.
- Informazioa hobeto ulertze aldera, ikasleei lagundu eta gidatu informazioa jaso aurretik, bitartean eta ondoren.
- Testu-liburua informazio-iturri bakarra izan beharrean, informazio bera ematen duten zenbait iturri proposatu pentsamendu kritikoa garatzea xede.
- Informazioa baloratzeko galdetegiak erabili: CRITIC galdetegia, ikertzaile digitalaren tresna...
- "Pentsamendu errutinetan" oinarritutako jarduerak proposatu, ikasleei pentsatzen eta gogoeta egiten laguntzeko...: "Ikusten dut, pentsatzen dut, nire buruari galdetzen diot..."; "Lehen hau uste nuen, orain...".
- Jarduerak proposatu ikasleek informazioa zalantzan jartzeko, interpretazio soziala eraikiz elkarrizketan jarduteko, informazioaren asmoa eta zentzu inplizitua antzemateko, informazio-iturriak alderatzeko...
- Informazioa berregituratzen eta berrantolatzen laguntzen duten jarduerak garatu; horretarako, besteak beste, kontzeptu-mapak, antolatzaile grafikoak, eskemak eta pentsamendu bisualaren teknikak (Visual Thinking) baliatu daitezke.
- Ideia berriak modu partekatuan eraikitzen laguntzen duten jarduerak proposatzea berdinen arteko interakzioa bultzatuz (estrategia kooperatiboak, tertulia kurrikularrak...).
- Ideia berriak garatzea eta eraikitzea sustatzen duten jarduerak proposatu hainbat adierazpide baliatuz: gorputza, hizkuntza, plastika, musika...
- Ikasitako baliabideak egoera eta zeregin berrietan aplikatu integrazio-egoeren bidez, unitate didaktikoak, arlo, ikasgai edo eremu ezberdinak elkarrekin uztartuz.
- Ikaste-prozesuaren fase ezberdinetan ikasitakoari buruz hausnartzen laguntzen duten tresnak proposatu.

B) Ebaluaziorako orientabideak

Konpetentzia honetan, ikasleak bere ikaskuntza modu autonomoan antolatzeko gaitasuna baloratu da. Hortaz, ikasleak trebetasun hauek erdiestea espero da: ikasteko eta lan egiteko ohitura eraginkorrak garatzea, ikasteko estrategiak egoki erabiltzea eta ikasitakoa beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzeko gai izatea.

Konpetentzia hau ebaluatzeko, komeni da honako hauek egitea:

- Unitate didaktiko bakoitzaren hasieran, helburuak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak argi eta garbi adierazitea, ikasleek haien berri izan dezaten; gainera, negoziazio bat ezarri daiteke ikaste-prozesuaren nondik norakoak adosteko.
- Sekuentzia didaktikoen hasieran, tresna egokiak aurkeztea ikasleak zer ataza egin behar duen uler dezan:
 - Errubrikak: Lortu nahi diren ikaspenak deskribatzen eta mailakatzen dituzte.
 - KWL galdetegiak (*zer dakit, zer jakin nahi dut, zer ikasi dut*): ikaskuntzaren aurrean kokatzen eta hura erregulatzen laguntzen dute.
- Laguntza-tresnak ematea ikasleek ikaste-prozesuari buruzko gogoeta egin dezaten (nola ikasten duten, zer zailtasunak dituzten, nola egin duten aurrera, zer lorpenak erdietsi dituzten):
 - Aprestua-egunerokoa: ikasleari laguntzen dio ikaspenari loturiko lorpenez eta zailtasunez jabetzea. Astero, hamabostero edota sekuentzia didaktiko baten amaieran erabili daiteke.
 - Portafolioa: ikaspenaren ebidentziak biltzen laguntzen dio ikasleari eta horrela bere ikaspenaz jabetzeko aukera izaten du ikasleak. Besteak beste, ebidentzia hauek bildu daitezke: laburpenak, aurkezpenak, monografiak, grabazioak, bideoak, denbora-lerroak, infografiak...
 - Kontratu didaktikoa: ikasleek zer ikasiko duen ezagutarazten du eta ikaspen-prozesuan izandako inplikazioa areagotzen du.
 - Autoebaluazio- eta koebaluazio-galdetegiak: ikasitakoari buruzko gogoeta egiteko aukera ematen dute.

ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA

Konpetentzia hau besteekin eta gizarte-ingurunearekin erlazionatzean taxutzen da, elkarrekotasun irizpideak kontuan hartuz, norberaren sentimenduak adieraziz eta besteenak entzunez, printzipio etikoak eta elkarbizitzarako arauak errespetatuz, eta gatazkak negoziazioaren bidez konponduz.

A) Orientabide metodologikoak

Elkarbizitzarako konpetentzia garatzeko, ikasleek harremanak eta komunikazioa landu behar dituzte, taldeko ikas-jardueretan lagundu eta elkarlanean aritu. Horrez gain, giza-eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatu eta gatazkak kudeatu behar dituzte; betiere interakzio eta kooperazio estrategiak baliatuta.

Gelako lanari laguntzeko, jarraibide hauek har daitezke kontuan:

- Komunikazioa, partaidetza eta norberaren ekimena bultzatzeko jarduerak egin. Ikasleei hitza emango zaie apendizaiia-prozesuan parte-hartzeko eta erabakitzeke (hasierako planifikazioan, egitekoen negoziatioan, ebaluatzeke modu, une eta prozeduretan...).
- Giro afektibo egokia sustatzeko jarduerak proposatu. Norberaren sentimenduak, emozioak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adierazteke jarduerak egin eta, besterenak adi entzuteke eta kontuan hartzeke ere bai.
- Talde-lana indartzeko jarduerak planteatu. Interakzioa da ikaskuntzaren bultzatzaile nagusia. Asertibitatea eta enpatia behar-beharrezkoak dira taldean lan egiteke eta ikasteko, elkarri laguntzeke, nor bere ardurak onartzeko eta helburu komuneko lanetan lankidetzan aritzeke.
- Komunikazio-arauak elkarrekiko interakzioan lantzeke jarduerak susstatu. Ikasleek komunikazio-arauak errespetatzeaz gain, enpatia erakusteko, jarrera solidarioak agertzeke eta autorregulazioa lantzeke jarduerak proposatu behar ditu irakasleak.
- Gelako jarduera parte-hartzaileak proposatu, hala nola debateak, azalpenak, mahai-inguruak, elkarrizketak ... gelako zein eskola elkarteko kideekin, herriko ordezkariekin...

- Metodologia kooperatiboak bultzatzeko jarduerak egin, berdinen arteko aprendizaiak sustatuz eta trebetasun sozialak berariaz landuz; hala, ikasle guztiek parte hartuko dute eta lidergoa partekatuko dute.
- Pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna balioesteko jarduerak bultzatu. Talde elkarreragileek, tertulia dialogikoek... aukera ematen dute iritzien aniztasuna jasotzeko eta denen iritzia balioesteko. Familien inplikazioa bultzatzea ere garrantzitsua da.
- Giza-eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoen inguruan gogoeta egiteko estrategiak garatu. Pertsona guztiek dituzten eskubide eta betebeharez hitz egin behar da. Halaber, justiziaz eta ekitateaz hitz egin behar da, desberdintasun- eta opresio baldintzak zuzentzeko eta funtsezko balioak defendatzeko konpromisoa hartzeko.
- Inguruko gizarte-arazoak ezagutzeko eta haren analisia egiteko jarduerak egin. Gizarte-arazoak eta ikasleen inguruan dauden arazo-egoerak proposatu eta interpretatu behar dituzte ikasleek. Halaber, ikasleek kontuan hartu behar dituzte urrunagoko errealitateak eta lotu hemengo egoerekin, gure herrian eta historian errotutako gertakariak ahanzi gabe.
- Gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko dinamikak proposatu. Gizonen eta emakumeen arteko bereizketa, batzuetan, ikusezina da; hala ere, bada. Irakasleek ikusarazi behar dute eta ikasleak sentibilizatu, jarrera eta iritzi desegokien aurrean erantzuna eman dezaten.
- Gizarte-ohituretatik eta konbentzioetatik eratorritako arauen inguruko gogoeta-jarduerak bultzatu. Konbentzio horien inguruan gogoeta egin behar da eta konbentzioak diren neurrian, aldagarriak direla ikusten lagundu ikasleei eta modu kritikoan aztertu, elkarrizketa eta negoziazio-prozesuak bultzatuz.
- Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bitartez konpontzeko moduez gogoeta egin eta estrategiak proposatu. Horretarako, kasuen analisia, simulazioak, rol jokoak, jolasak, proiektuak, arazoak ulertzera bideratutako gogoetak... proposatu daitezke. Besteak beste, ikastetxean eta familian eguneroko bizitzako egoera informaletan sortzen diren gatazkak azter daitezke.
- Pertsonen arteko harremanetan arau-hausteengatik sortzen diren arazo eta bazterketen aurrean jarrera kritikoa erakutsi eta konponbidea

bilatzen saiatzeko jarduerak egin. Bullying arazoak, sexu bereizkeria, androzentrismoa... saihestu eta halakorik gertatuz gero, zentzu kritikoz aztertu, erantzukizunez jokatu eta konpontzen saiatu.

- Elkarbizitza arautzeko eta antolatzeko ikastetxeak dituen egiturak eta pertsonak ezagutzeko jarduerak antolatu. Ikastetxeko barne-funtzionamenduko arauak, egiturak eta arduradunak (elkarbizitza arduraduna, ikasleen eskubideen behatokia, batzordeak, ziber-managerrak...) ezagutu behar dituzte ikasleek, bizikidetzaren giroa hobetzeko.

B) Ebaluaziorako orientabideak

Elkarbizitzarako konpetentzian kontuan hartuko dira harremanetan eta komunikazioan ikasleek erakusten duten enpatia eta asertibitatea, bai eta talde-lanetan laguntzeko eta elkarlanean aritzeko duten gaitasuna ere (arauak, ardurak, konpromisoa...). Halaber, kontuan hartuko da giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzeko duten gaitasuna bai eta gatazkak kudeatzeko dutena ere.

Konpetentzia hau ebaluatzeko, komeni da honako hauek egitea:

- Unitate didaktikoaren edo proiektuaren hasieran, negoziatio-jarduerak proposatzea ikasleekin, elkarrizketa eraikitzailearen bidez, egitekoak, ebaluazio moduak eta bideak zehazteko ...
 - Kontratu didaktikoen bidez ikastaldek iritziak modu esplizituan adierazi ahal izango ditu eta elkarrekin erabakiko dituzte hartuko dituzten konpromisoak talde lanari lotuta. Idatziz nahiz ahoz egin daitezke.
 - Erregistro-orriak taldeak ezarritako helburuen betetze-maila eta norbanakoen ardurak eta zereginak zehazteko balio du. Taldeak, talde bezala, ondo egiten duena neurtzeko eta hobetu beharrekoak identifikatzeko tresna baliagarria da.
- Kideekin lankidetzan ari direlarik, zer den baloratuko dena jakinaraztea. Horretarako, gelako jardueretan eta unitate didaktikoak aurkeztean, talde lanari eta euren arteko interakzioari zer nolako garrantzia emango zaion eta zer den kontuan hartuko dena zehaztu behar zaie (arauak, parte hartzea ...)
 - Taldeko kontratu didaktikoek laguntzen dute egitekoak zehazten eta ikasle guztien konpromisoa bideratzen.

- Kontrol-zerrendek eztabaidak, elkarrizketak, elkarlana... bideratzen laguntzen dute. Kontrol-zerrendak jasotzen dituen itemak taldeak adostuko ditu.
- Autoebaluazio- eta koebaluazio-txantiloiek balio dute harremanetan eta komunikazioan ikasleak nola aritu diren zehazteko. Hala, balio dute ikasleek erakutsi duten enpatia eta asertibitatea ebaluatzeko nola sentitu eta aritu diren talde lanean, lankidetzan eta kooperazioan.
- Ebaluatzea nola jokatzeko duten ikasleek askotariko taldekatze-moten arabera (bikoteka, talde heterogeneotan...). Oso kontuan hartu behar da ikasleek, askotan, euren benetako ahalmenak berdinen arteko interakzioan erakusten dutela.
 - Autoebaluazio- eta koebaluazio-txantiloiek laguntzen dute prozesua ikustarazteko eta interakzioan nola aritu diren baloratzeko, hura hobetze aldera.
 - Behaketa eta erregistro-orriak. Ikasleen jarrera, parte-hartzea eta interesa modu sistematizatuan erregistratu behar dira. Ikasleek irizpideen berri eduki behar dute, eta ahal izanez gero, parte hartu itemak zehazten.
 - Errubrikak. Erabilgarriak dira ikasleen arteko debeteak, mahai-inguruak, elkarrizketak ebaluatzeko. Errubrikek adierazleak deskribatuta dituzte eta lorpen-mailak zehazten dituzte.

EKIMENERAKO ETA EKITEKO ESPIRITURAKO KONPETENTZIA

Konpetentzia honen bidez ideiak ekintza bihurtzen dira. Prozesu horrek eskatzen du egoera guztietan aukerak bilatzea eta horietako bakoitzaren alde positiboena baliatzea.

A) Orientabide metodologikoak

Konpetentzia hau garatzeko oso garrantzitsua da ikasleek euren proiektu propioak garatzeko baliabideak lantzea. Baliabide horiek indartu egin behar dituzte ikaslearen sormena, ekimena eta konfiantza. Halaber, antolakuntza, elkarrekintza eta lankidetzaren bultzatu behar dituzte, bai eta ikaste-prozesuaren inguruko gogoeta, arduraren, frustrazioaren kudeaketa eta analisi eta kritikarako gaitasuna ere.

Jarraibide hauek lagungarriak izan daitezke konpetentzia hau gelan lantzeko:

- Ikaslearen sormena bultzatzen duten jarduerak proposatu, bere ideiak gauzatzeko eta aurrera eramateko gauza izan dadin. Horretarako, lekua emango zaio sormenaren garapeneri, eta ikaslearen ideiak baloratu eta uneoro lagundu eta motibatatu.
- Ekimena sustatzeko jarduerak egin, ikasleari aukera eman bere ikaste-prozesuaren antolakuntzan eta garapenean parte-hartzeko, bere autonomiaz eta erabakitze gaitasunaz jabe izan dadin.
- Ikaslearen konfiantza indartzeko jarduerak garatu, autoestimua sendotzeko eta askotariko egoera eta erronkei aurre egiteko. Hala, norberaren ideien konfiantza izateko eta ziurtasuna bultzatzeko egoerak sustatuko dira.
- Antolakuntza lantzeko jarduerak proposatu, eta horretarako aprendizai-espazioetan proiektuak planifikatu eta egin, denbora eta baliabideak egituratzeko eta erabiltzen ikasteko.
- Proiektuetan, elkarrekintza eta lankidetzaren sustatzeko jarduerak bultzatu, taldean lan eginez, taldean aktiboki parte-hartuz eta gainerakoen ideiak errespetatuz.
- Norberaren ikaste-prozesuaren gaineko gogoeta sustatzeko jarduerak proposatu, ikasleari bere burua ezagutzeko aukera eman.

- Ardurak lantzeko jarduerak planteatu, ikasleei ulertaraziz ekintza guztiek ondorioak dituztela, ondorio horien erantzukizuna hartu behar dela ulertzeko eta hartu duten konpromisoa betetzeko.
- Frustrazioa eta galera kudeatzeko jarduerak garatu; porrota gauza berriak ikasteko aukera gisa hartzeko.
- Analisi- eta kritika-gaitasuna lantzeko proposamenak garatu, errealitatea ulertzen laguntzeko eta haren inguruan gogoeta egiteko eta horrela, ikasleak errealitate hori ulertzeko bere bideak bilatuko ditu eta bere konponbideak bilatu ahal izango ditu.
- Askotariko egoera eta zailtasun ezberdinetako erronkak proposatu, ikasleak bere erantzun propioak bila ditzan.

B) Ebaluaziorako orientabideak

Konpetentzia honetan baloratuko da ea zer gaitasun izan duen ikasleak bere proiektuak aurrera eramateko. Beraz, espero da ikasleak elkarri lotzea esfortzua eta arrakasta, bere lana eraginkortasunez antolatzea eta bere ekintzen ondorioak onartzeko kapaza izatea.

Konpetentzia hau ebaluatzeko komeni da honako hauek egitea:

- Ikastunitate -sekuentzia, proiektu,..- bakoitzaren hasieran, helburuak, ebaluazio-irizpide eta lorpen-adierazleak argi uztea, ikasleak ikaskuntzaren nondik norakoak ulertu, barneratu eta adostu ditzan.
 - Hartutako erabakiak arduraz eztabaidatzeko, adosteko eta barneratzeko kontratu didaktikoak.
- Ikasleari askotariko tresnak eskaintzea bere produkzioa irudikatu, kudeatu zein ebaluatu dezan. Hartara, produkzioaren ibilbidea bera, izan dituen zailtasunak, aurrerapenak eta lorpenen berri izango du. Honako hauek dira, besteak beste, erabil daitezkeen tresnak:
 - Produkzioaren prozesu garrantzitsuenak era sortzailean antolatzeko: laburpenak, aurkezpenak, grabazioen monografikoak, bideoak, kronogramak, infografiak...
 - Aprestizaia-egunkaria. Bertan, era kontzientean, prestizaiaren lorpenen, zailtasunen, jakin-nahien... informazioa jasoko du eta proiektuaren proiektuaren egoeraren berri eduki.

- Ikasleari bere produkzioen argazkia egiteko baliabide anitzak eskaintzea berak aukeratu ditzan bere estilo eta beharren arabera. Bertan, ikasleak irudikatu, pentsatu, kudeatu eta ebaluatu dezake bere aprendizaiaren ibilbidea.
 - Autoebaluazioa eta koebaluazioa egiteko txantiloak. Ikasleari bere aprendizaiaren ibilbidea kudeatzen lagunduko diote eta bere lanaren kontzientzia hartzen lagundu.
 - Kontrol-zerrendak ere erabili daitezke produkzioa garatzen laguntzeko, aurrerapenak eta zailtasunak zehazteko.

- Ikasleari aprendizaiaren prozesuan erabili dituen estrategiez konturatzeko askotariko baliabideak eskainiko dizkiogu:
 - Ikasleak lehen ideiatik azken produkzioraino egin duen ibilbidea, ateratako ondorioak eta hobetzeko alderdiak azaltzeko tresna anitzak proposatu daitezke, hala nola aurkezpenak, erakusketak, bideoak, arte-lanak, mugimendua ardatza duten lanak...

IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA

Konpetentzia hau honetan datza: ikasleak bere sentimenduen, pentsamenduen eta ekintzen gaineko gogoeta egitea, haiek sendotuz eta doituz, norberaren dimentsio guztien garapenean aurrera egiteko bizitzako hainbat egoera eta esparrutan,

A) Orientabide metodologikoak

Konpetentzia hau garatzeko, gelako jarduerak ikasleari lagundu behar diote autorregulatzen eta bere sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egiten, horiek pertsona moduan aberasten eta hazten lagunduko diote.

Jarraibide hauek lagungarriak izan daitezke konpetentzia hau gelan lantzeko:

- Eskola-etapa guztietan hainbat jarduera proposatu ikaslearen nortasuna eraikitzeko eta norbera izaten ikasteko baliabideen garapenean laguntzeko. Proposamenak izan daitezke: esfortzua eta konstantzia eskatzen duten lan pertsonaleko jarduerak edota erronka-jarduerak, ikasketan zehar proposatutako autorregulazio jarduerak...
- Kultura, hizkuntza, ideologia, erlijio... ezberdinak ikustarazten dituzten jarduera anitzak garatu, hazkuntza pertsonala eta ikuspegi ezberdinen aberastasuna errazteko, norberaren mugak onartu eta pertsona guztien ekarpenak kontuan hartuta.
- Jarrera kritikoa sustatzen duten jarduerak egin. Horretarako proposamen hauek egin daitezke: ikaste-prozesuaren osagai moduan akatsen onarpena bultzatzen dutenak; irtenbide desberdinen artean aukeratzea bultzatzen duten egoerak; norberaren ezaugarriez eta asmoez gogoeta egiten laguntzen dutenak; planteatutako egoerei dagokienez, norberaren erabakiak hartzen errazten dutenak...
- Askotariko taldekatze-moduak errazten eta dinamika kolaboratzaileak eta parte-hartzaileak sustatzen dituzten jarduerak proposatu. Taldekatzeetan ezarritako rol ezberdinetan parte hartzeak ikasleen esperientzia eta ikuspuntu ezberdinek sortutako iritzi-aniztasuna aberastuko ditu.
- Autorregulazio jarduerak proposatu, hau da, norberaren alderdi positiboez eta negatiboez gogoeta egitea sustatzen duten proposamenak - autoebaluazio-txantiloak -, autoestimua bultzatzeko proposamenak - lan-

planak egitea, jardueren hobekuntza-proposamenak, erabakiak hartzea...

B) Ebaluaziorako orientabideak

Konpetentzia honetan baloratuko da ikaslearen gaitasuna ekintzak eta jarrerak autorregulatzeko, norberaren garapenean ez ezik gizarte garapenean ere aurrera egiteko.

Konpetentzia hau ebaluatzeko komeni da honako hauek egitea:

- Bai norberaren pertzepzioen, pentsamenduen, sentimenduen... eta lan-prozesuen gaineko gogoeta egiteko erremintak bultzatzea.
 - Autoebaluaziorako erremintak baliatzea, ikasleari bere emozioez gogoeta egiten lagunduko diotenak, haiek erregulatzeko, kudeatzeko eta egoerari moldatzeko.
 - Koebaluazio- eta koebaluazio-txantiloak. Autoestimuaeren garapenean lagundu dezakete lorpenak eta norberaren lanaren alderdi positiboak ikustaraziz .
- Ikasleari bere jarreraren, ekintzen, lorpen eta progresioaren kudeaketan lagunduko dioten erremintak:
 - Kontratu didaktikoak, ikasleak bere ardurak zein diren jakin eta bere gain hartuta, hartutako konpromisoez jakitun izan dadin.